



### **Amaia Arroyo Sagasta – HUHEZI - Mondragon Unibertsitatea**

Amaia Arroyo Sagasta Komunikazioan eta Hezkuntzan doktorea da (UNED, 2017), eta Doktoregoko Sari Berezia eskuratu zuen. Gainera, Komunikazioa eta Hezkuntza Sarean (UNED) eta IKTak hezkuntzan (Mondragon Unibertsitatea) lantzeko masterrak egin zituen, eta hasierako formazio gisa Hezkuntza Bereziko Irakasle Ikasketak burutu zituen. 15 urte baino gehiago eman ditu irakasleak teknologia digitalaren erabilera pedagogikoan formatzen. Irakasle-, aholkulari-, ikasmaterialaren egile- eta editore-lanak egin ditu; betiere, ikuspegi tekno-pedagogikoa ardatz hartuta. INTEFeko Konpetentzia Digitalaren inguruko aditu-taldean parte hartu zuen. Irakasle izan da hainbat unibertsitatetan eta 2015ean hezkuntza-aholkularitza kooperatiba bat sortu zuen, ikastetxeetan konpetentzia digitalaren inguruko aholkularitza eskaintzeko. Gaur egun, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) irakaslea eta ikerlaria da, eta KoLaborategiaren parte da, Gizarte Digitaleko Hezkuntza eta Komunikazio laborategia. Era berean, koordinatzaile, irakasle eta Batzorde Akademikoaren kide da UEUk eta EHUK sustatutako HEZikt graduondokoan.

Bere ikerlerroak honakoa hauek dira: konpetentzia digitala hezkuntzan, ikaskuntza-inguruneak eta -ekosistemak, diseinu tekno-pedagogikoa eta hezkuntza-berrikuntzaren ikuspegi kritikoa.

<https://orcid.org/0000-0002-3493-0375>